


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2026-04-29 / 897 ZENBAKIA / 22. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Eusfera, euskara ardatz duen egitasmoa

0-12 urte bitarteko haurren gurasoei dago zuzendua egitasmoa. Maiatzean abiatuko da Euskal Herri osoan eta, dagoeneko, egitarau oparoa prest dute Andoainen / 2-3



Haur eta gaztetxoen mailako Antia Literatur sariak banatu ditu Urrietako Udalak / 13



Larrea, Garmendia eta Ziaurriz, solasean. Gozatu ederra hartu zuten Lekaiora hurbildu zirenek / 13



Erasoen aurkako protokoloa lantzeko partaidetza handia

Santakutzak apirilaren 30ean hasi eta maiatzaren 3ra bitarte luzatuko dira / 4-11

AIURRI

Arropa eta osagarriak

Kale Nagusia, 6
ANDOAIN
943 591 224

Gora Santa Krutz jaiak!

زندگی آرای



Eusfera egitasmoa aurkeztu zuen Taupa mugimenduak Donostian. EUSFERA

Iristear da Eusfera egitasmoa Euskal Herrira

Gure haurren ingurua, unibertsoa, euskaldunagoa izatea nahi duten familientzako ekimen berria da Eusfera. Euskaraz jakin ala ez, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoei dago zuzendua. Haurren inguru euskaldunagoa izatea nahi duten guraso guztientzat

Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Maiatzaren 7tik 17ra bitartean gauzatuko da ekimena Aiztondo-Tolosaldean eta Beterrri-Buruntzan. Andoainen lanak aurreratu dituzte eta dagoeneko egitarau oparoa prest dute. Baina, zer da Eusfera? Euskaralditik gertu dagoen egitasmoa da, xedea bera baita. Sustatzaile nagusiak ere berberak dira: Taupa mugimendua eta euskal erakundeak. Euskaraldia iaz egin zen eta datorren urterako edizio berria buruan dute.

Euskararen aldeko ekimenak hutsunerik merezi ez duela iritzita, 2026rako Eusfera abian jarri dute. Gure haurren ingurua, unibertsoa, euskaldunagoa izatea nahi duten familientzako ekimen berria da Eusfera. Horretarako, sustatzaileek baliabide eta tresna ezberdin eta askotarikoak eskaini eta euskaraz gozatzeko familientzako elkarguneak sortuko dituzte. Andoainen, esan bezala, martxan da ekimena eta guraso-taldea giltzarri bilakatu da.

Euskaraz bizitzeko hizkuntza bera lehen lerroa ekartzea da xedea. Bistakoa baita gure etxeko haur eta gaztetxoaren atmosferan euskaraz gero eta presentzia handiagoa behar duela. Aurrerapausoak ematen jarraitu nahi dugu aisialdia, kultur kontsumoa, etxeko hizkuntza praktikak... euskaldunagoak izan daitezen. Euskaraz jakin ala ez, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoei dago zuzendua. Haurren inguru euskaldunagoa izatea nahi duten guraso guztientzat.

Euskara, etxean eta familian

KIKE AMONARRIZ SOZIOLINGUISTA

Zero-hamabi urte bitarteko seme-alabak dituzu? Eta beraien ingurunea, beraien unibertsoa euskaldunagoa izan dadin nahi duzu? Galdera hauek, zuri, zuzenduta daude. Izan ere zero-hamabi urte, zein adin polita! Beraiekin jolasteko, beraiekin gozatzeko... Aurkikuntza garaia da gure seme-alabentzat. Eta beraiek deskubritzen ari diren mundu horretan, euskaraz leku egokia izan dezaten eta euskara bizipozarekin lotu dezaten nahi baldin baduzu, hona aholku batzuk.

Lehen aholkua.

Dakizuen euskara transmititu, konplexurik gabe.

Zuek dakizuen euskara hori eman. Ahalik eta modurik osotuenean, ahalik eta modurik aberatsenean. Eta halakoren batean, hutsuneren bat edo gabeziaren bat sumatzen baldin baduzue, ba,

saiatu hori konpontzen, eta ikasten. Izan ere, etxetik euskara osoa eta aberatsa jasotzen duten haur horiek dira, ondoren, euskara gehien erabiltzen dutenak. Eta esandakoa: momenturen batean, ikusten baldin baduzue hankamotz geratzen zaretela, ba esan dezakezue ahal duzuen bezala edo erderaz, baina gero konpondu, itzuli euskarara eta saiatu hori hobetzen.



WIKIPEDIA

Bigarren aholkua.

Euskararekiko motibazioa landu.

Gure seme-alabek nabaritu behar dute, sentitu behar dute, jakin behar dute guri euskaraz axola digula eta guk nahi

dugula ere haiek euskaraz egin dezaten. Hori transmititu egin behar da. Motibazio hori heldu egin behar zaie. Eta zuen euskara maia mugatua balin bada, adierazi, azaldu, esplikatu zergatik den mugatua, baina hala ere, zuentzat oso pozgarria dela beraiek euskaraz egin dezaten. Eta bide batez, bai batzuk eta bai besteek, zuen euskara maila, hobetzen joan.

Hirugarren aholkua.

Hizkuntza arauak modu jolastian transmititu.

Zer ikusi, hura ikasi. Haurrek, hizkuntzarekin batera, hizkuntza erabiltzeko ditugun ohiturak ere jasotzen dituzte, ikusten baitute norekin egiten dugun eta norekin ez edo zergatik bai, edo zergatik ez. Horregatik da hain garrantzitsua, hizkuntza ohiturak finkatzea etxeetan. Eta horiek transmititzea, baina modu jolastian, modu positiboan, modu baikorrean. Eta ez, modu zigortzailean.

Laugarren aholkua. Erderaz egiteko ohitura aldatu.

Ea! Badakigu, familia askotan, harreman askotan, erdera erabiltzen da, ba, horrela ezagutu ginelako, ohituraz eta inertziaraz. Batzuetan kostatzen da gehiago, batzuetan gutxiago. Eta pentsatu behar dugu nola-norekin-noiz hasi gaitzkeen ohitura horiek aldatzen. Pixkanaka, baina beti urrats bat aurrera emanez. Eta ez bakarrik gurasoen arteko harremanak, baita ere anai-arrebekikoak, aiton-amonekikoak eta beste senideekikoak. Pazientziaraz, baina ekimenez lortzen da!



Martxoaren 11n egindako bilera, Arrate pilotalekuan. AIURRI

Andoaingo guraso taldea, Eusfera taldearen gidari

Martxoan hasita, Andoaingo guraso taldea lanean ari da maiatzeko egitarauaren prestaketan

Erredakzioa ANDOAIN

Euskararen erabilera sustatzea xede du Eusferak. Egitasmoaren muina Taupa euskaltzaleen mugimenduak landu du Euskal Herrian. Tokian tokiko eragilean bitartez garatzen ari da egitasmoa, 2026an abiatuta. Tartean, Andoain. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna ari dira egitasmoa sustatzen, eta eurek bota zuten lehen amua hiru ikaste-txeetako gurasoei deialdia luzatuz. Andoaingo Udaleko Euskara Saila egitasmoaren lankide da, era berean. Gurasoen erantzuna zinez pozgarria izan da. Joan zen martxoaren 11n, Arrate pilotalekuko bilera-gelan, dozenatik gora guraso bildu ziren. Motibazioz gainezka zirenez, egitarau oparoa osatu duten maiatzerako. Ideia-zaparrada egin ostean, egitaraua finduz joan ziren hurrengo astetan.

Egitarau oparoa

Maiatzaren 8tik 17ra jolasak, ipuin kontaketa saioa, ginkana, zirku tailerra eta Eusfesta antolatzea adostu dute. Ez da, ez, gutxi!

Aintzat hartu diruzte, ezin bestela, haurren gustuko jarduerak. Beraz, maiatzean, euskara ahoan, dantzatzeko, abesteko, jolasteko eta euskaradunak garela ospatzeko hitzordurik ez da faltako.

Eusfesta

Goizean hasita, familia giroko festa egin nahi dute Etxeberrieta plazan. Sari banaketa ekitaldia, bazkaria eta plaza-dantzak iragarri dituzte. DJ Mikeltxi bertan izango da. Abenduan egin zuen debuta herrian, eta orduko hartan haurrak eta gurasoak dantzan jarri zituen. Inauterietan izan ostean, hirugarrenez hurbilduko da Andoainera.



Euskal Mitologia. EUSFERA

Mitologian murgiltzeko jolasa

Erredakzioa ANDOAIN

Etxeko txikiekin batera irakurtzeko moduko proposamena luzatu du Andoaingo Eusferak: "Galtzagorriak, Mari eta beste izaki mitologiko batzuk herrian ezkatututa dabilta. Gymkanan, pistak jarraituz denda desberdinak bisitatu beharko dira, bakoitzean puzzleko pieza bat lortuz. Osatzen duzunean, azken festara ekarri eta saria jasoko duzu. Eta, gainera... parte-hartzaile guztien artean zozketa berezi bat egingo da: Irrisarri Land-era sarrera! Taldean edo bakarka animatu, baina prest egon puzzlea osatzeko, pentsatzeko eta batez ere... primeran pasatzeko!"



EUSFERA ANDOAINEN

MAIATZAK 8

OSTIRALA

JOLASAK

17:00 2-6 urte bitarteko haurrentzat jolasak.

18:00 6-12 urte bitarteko haurren vs gurasoen arteko jolasak. Leizaur Parkean izango da ekitaldia.

Euriarekin, bi ekitaldiak Ondarreta Herri Eskolako jolastokian.

MAIATZAK 9

LARUNBATA

ZIRKU TAILERRA

16:30 5-12 urte bitarteko haurrentzat. Ordubeteko 3 txanda: 16:30 17:30 eta 18:30. Txanda bakoitzean, gehienez, 24 haur. Euria eginez gero, ekitaldia Ondarreta Herri Eskolako jolastokian egingo da.

MAIATZAK 11-16

ASTE OSOAN

GYNKANA MITOLOGIKOA

Pistak jarraituz, herriko merkatalguneak bisitatu beharko dituzte partaideek, eta gune bakoitzean puzzleko pieza bat lortuko dute. Pieza guztiak bilduta, pertsonaia mitologikoaren puzzlea osatuko dute.

MAIATZAK 12, 13

ASTEARTEA, AZTEAZKENA

PARKETARRAK

17:00-19:00 Euskaraz jolasteko, dantzatzeko eta ondo pasatzeko tartearen edizio berria iritsi da Andoainera. Maiatzaren 12an, asteartea, Goikoplazan. Maiatzaren 13an, asteazkena, Zumea plazan.

MAIATZAK 14

OSTEGUNA

IPIIN KONTAKETA SAIOA

17:30 XoOoo! 0-6 urte bitarteko haurrentzat ipuin kontaketa musikatu, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan. Josiane Aguerre-Valenciak sortua eta Ainhoa Elizondo andoaindarrak musikatu.

MAIATZAK 17

IGANDEA

EUSFESTA

Etxeberrieta plaza. Euriarekin, Ondarreta Herri Eskolako jolastokian. **11:30** Gymkanaren sari banaketa ekitaldia eta zozketa. **12:00-13:30** DJ Mikeltxi. **11:30** Bazkaria, nor berea eraman behar du. **16:00** Plaza-dantzak.



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

Maketzaileak: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAJAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Urnieta Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hibundia Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO INJURIARITZA GOBERNUA VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.





Xabat Ruiz, Ander Olasagasti, Jon Jauregi eta Ekain Bellanco Doktor Huizi kaleko probalekuan, joan den apirilaren 23an. AIURRI



Jende ugari bertaratu da Dr. Huizi kaleko egoitzara, harriak probatzera. AIURRI

Baditu parte-hartzaile ugari harri traketsen txapelketak

Bosgarren ediziora iritsi da Santa Krutz Harri Jasotze txapelketa herrikoia, eta jada sei kirolariek eman dute izena. Zerrenda hurrengo egunetan gehituko dela espero dute antolatzaileek

Xabier Lasa ANDOAIN

Txapelketaren araudi nagusiari jarraiki, forma baldarreko bi harririk aritu beharko dute parte-hartzaileek. Nork altxaldi gehiago egin, 52 kg. eta 80 kilo-koak. Gizonezkoek bi harriz arri heldu behar diete, bi minutuko saio banatan; emakumeek, berriz, 52 kilo-koari, bi minutuko bi saioetan.

Sei parte-hartzaile, oraingoz

Astlehenera arte behintzat, sei harri jasotzaileek eman zuten izena bertan parte hartzeko. Horiek dira, Lander Amas, Ander Olasagasti, Ekain Bellanco, Izaro Mikelarena, Ane Otamendi eta Jon Gabirondo. Hurrengo egunetan animatuko de kirolaririk izango dela, nahiko segurua da, aurreko urtetan gertatu izan

den antzera. Bestalde, ez da ahaztu behar azken unera arte eman litekeela izena, txapelketaren izaera herrikoari utsita. "txapelketa hasi baino minutu batzuk lehenago plazara joan, eta harriak proba ditzake edonork" gogorarazi du Ander Olasagasti antolaketa taldeko kideak.

Dena esatera, kirolari ugari bertaratu da Andoaingo Harri

Eskola sortu berriak Doktor Huizi kalean udalak utzita ireki duen probalekura. Ikusteko dago horietako zenbatek eman go duten plazarako urratsa, izena eman duen seikoteaz gain.

Plazara, lotsak eta beldurrak uxatuta

Izaro Mikelarena izan da egunotan egoitzan ibili den kirolarrietako bat, harriekin zailtzeko asmoz.

Aurten ere animatu da 52 kiloko harriarekin, eta laugarrenengo aldia izango du, eta beraz, badauka nahikoa eskarmentua harri traketsari nondik, nola... heltzeko orduan. "Harri txikiarekin nahiko zailduta nago, eta gorputz jarrerak-eta aritu naiz lantzen egunotan; 80 Kg.koa, ordea, ezinezkoa iruditzen zait, teknika asko eskatzen du".

Kirolaria da Mikelarena, Leizaran klubean eskubaloian aritu izan da urtetan, batik bat. Harriak jasotzen hasi zedin zerk tentatu ote zuen galdetzen zaio-

nean, harri-jasotzaileak lanean ikustea izan zela aitortu du: "Harrigarria iruditzen zait pertsona batek eduki dezakeen gaitasuna holako pisua sorbaldaraino eramateko. Horretarako behar den teknikak erakarri ninduen hasieratik. Harriztar horiek probatzen hasi arte, pentsatzen nuen gehienbat indarkontua zela, baina baita zera ere! Jai daukazu teknikaren faltan; nahiz eta indarra soberan eduki, harria ez duzu edonola altxatuko!".

Ikuslez gainezka jartzen da Bekoplaza, eta etengabeak izaten dira animoak eta garrasiak parte-hartzaile guztientzat. "Lehenbiziko urtean, lotsa pixka batekin, eta baita maila

"EZ DA ELITEKO KIROLARIENTZAT, HERRI MAILAKOA DA, ETA EDOZEINEK HAR DEZAKE PARTE"



Erosi Andoainen

NIRE HERRIA, NIRE DENDA

Andoainen erostearen alde onena,
Andoainen geratzen dela

Gora Santakruzak!

S2
SALKIN
bertatik bertara

ANDOAINGO UDALA

Euskadi,
argitana, leku onena
EUSKADI
GOBIERNO VASCO
EUSKADIA
GOBIERNO VASCO





emango ez ote nuelako beldurrarekin ere, irten nintzen plazara. Baina sentimendu horien gainetik, harria giro sano batean probatzea nagusitu zen nigan, azkenean”.

Emakumeen presentzia ez da gizonezkoen parekoa txapelketan, eta horrek pena ematen dio, “azken batean, parte-harzaile kopuruak bezainbat garrantzi dauka horien profilak. Aniztasunak dauka grazia izugarria!”.

Herrikoia eta ikuskizun eragilea

Santa Krutz Txapelketak badaukala berezitasunik azpimarratu du Mikelarenak. “Ez da eliteko kirolarientzat, herri mailakoa da, eta edozeinek har dezake parte. Plazaratzen garenok denok gara ezagunak, eta herriko gazteen arteko lehia izateak badauka aparteko xarma. Giro ederra egoten da Bekoplazan, ikuskizun polita sortzen da eta gozatu egiten dute bertaratzen diren herritarrek, are erakargarriagoak bilakatzen dira Santa Krutz jaiak, eta hori dena nahikoa ez eta, herri kirolak sustatzen dira. Zer gehiago eskatu?”.



Izaro Mikelarena harrizarra mendean hatzeko gutxi falta zaiola. AIURRI

Santakrutzak
 Aiurri.eus
 webgunean

Okm:
 batzen gaituen
 distantzia

DANENA
 Ondo pasa
 Santakrutzetan!
 Eguneko menua
 Plater konbinatuak
 Bokatak

f
 Zumea, 22 - Tel.: 943 590 210 - Andoain

MIZPIRADI
 SAGARDOTEGIA

Gora Santakrutzak!

Urte osoan zabalik!

943 59 39 54
 Leizotz, 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus

ORDUTEGIA:
 Asteartetik ostegunera: . . . 09:00-19:00
 Ostiraletan: 09:00-17:00
 Larunbatetan: 08:00-13:00

Jai zoriontsuak! **f**

ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA

adats

Tatoó
 Piercing
 Laser
 Depilazioa

Belabi kalea, 10-behea
 20140 Andoain - Tel.: 943 570 796

MAIATZ
 gozotegia

arruti

Gora Santakrutzak

Maiatzak 3, amaren eguna

Enkarguak jasotzen ditugu
 Zumea 18, Andoain - 943 59 37 77



Plaza dantza, Plaza Morean, iazko jaietan. AIURRI



Belen Ugartemendia eta Lurdes Ubillos, plaza dantzen zaleak. AIURRI

Plaza dantzak berreskuratzeko desioa

Plaza dantzen saioa ospatuko da igandean, Kale Nagusian barrena. Lurdes Ubillos eta Belen Ugartemendiak plaza dantza zale amorratuak dira, eta ez dute hutsik egingo igandean, 19:00etatik aurrera, Jeiki Hadi taldearen erritmopean

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo kaleak lehen ere girtu izan ditu Jaiki Hadik, eta badauka eskarmentua jendea mugiarazterako orduan. Plaza dantzak oinarritu dituzten erromerien zale amorratuak dira Lurdes Ubillos eta Belen Ugartemendia, eta zain daude igande arratsaldea noiz iritsiko. Zehaztu dutenez, dantza plazak aipatzen direnean, Nafarroan eta Iparraldean errotutako Dantza Jauziak, Zapzi Jauzi, dantza jokoak, Muxikoak... esan nahi da.

Plaza dantzen erromeriak Aris-terrazun, Zelatunen edo beste zenbait tokietan egiten diren erromeria klasikoengandik berezi nahi izan dituzte, azken horietan batik bat arin-arin eta fandangoak, pasa-dobleak eta kalejirak egiten baitira.

Plaza dantzak, modan

Azken urteetan plaza dantzak deituriko erromeriak zabaltzen ari direla aitortu dute biek. "Gero eta herri gehiagotan egiten dira, maiztasun jakin batekin, Pasaian,

Hernanin, Lasarte-Orian, Hondarribian...Zenbaitetara joan izan gara, eta gozatu ederra hartu izan dugu". Plaza dantzei arrakasta nondik datorkien galdetuta, berezkoak dituen zenbait ezaugarri aipatu dituzte. Hala nola, bikoteka egiten diren dantza saioek dantzarien artean harreman politak sortzeko eta sozializatzeko aukera ematen dutela, edota, oso ekimen herrikoiak direla, "demokratikoak", adin eta gorputz guztientzat egokiak izaten diren aldetik. Trebe-

zia fisiko askorik ez eskatzearen ezaugarri horrek badauka bere garrantzia, Ugartemendiaren hitzetan, "ez da sasoi bikainekoa izan behar parte hartzeko bertan. Oinak lurrera itsatsiago dituzula egiten dira; alegia, gorputza ez dela hainbeste behartu behar izaten, esate baterako, arin-arin eta fandangoekin bezala".

Ugartemendiak gehitu duenez, errazak dira ikasten plaza dantzetan egiten diren dantza askoren pausoak, "gozaten ari zara pauso horien exekuzioarekin, baina aldi berean, erne egotea eta kontzentrazioa eskatzen dizute, hurrengo pausoa zein den kontura zaitzen". Horrela, zenbait plaza dantza saioetan, dantza-esatariekin egiten dira.

Dantza egin nahi duzu? Zatoz!

Andoainean plaza dantzak nahi bezain sustraituta ez daudela eta penatuta geratu beharrean, ekin-tzaile bilakatu dira Ubillos eta Ugartemendia. Horrela, plaza dantzak Andoainean ere sustatze-

ko asmoz, astelehenero (18:50-19:50), plaza dantzen saioa jarri dute martxan, Urkiren egoitzan, Olagainen. "Plaza dantzak maite dituen eta praktikatu nahi dituen edonorentzat irekita dago saioa. Espazioa eta musika badaukagu, eta beraz, gogoia besterik ez da behar". Zeintzuk diren saio horien ezaugarriak, zehaztu dute: "Ez da dantza ikastaroa, ez da matrikularik egin behar, eta astero etortzeko konpromisorik ere ez dago hartu beharrik".

Orain bizpahiru aste hasi ziren "Dantza egin nahi duzu? Zatoz" dioen kartela zabaltzen, whatsapppeh oharra bidaltzen eta ahoz aho azaltzen ekimena, eta dantza zaleak poliki-poliki bertara daitezen espero dute. "Badakigu jendea ez dela tropelean helduko. Baina hasieran izaten diren latsa, errezelo eta abarrak uxatu, eta hasiko dela hurbiltzen iruditzen zaigu, bai baitakigu Andoainean ere badela jendea dantzarako gogoz dagoena. Talde polita sortu liteke".

Jaletarako prestatu

Urrats
Inprimategia

Inprimaketa lanez gain:
Bluxak, kamixetak, zapiak, txapak...

Urrats: 688 61 85 48

urrats@urratsinprimategia.com

Gora Santakruzak!

AMABI

hour eta gazte jantziak
0-16 urte
+EMAKUMEA

Zumea kalea, 15. ANDOAIN. 943 57 31 62



"Gaztetatik nirekin bat datorren zaletasuna da"

ARITZ AGIRRE DJ EZEKIEL

Larunbat eguerdian, Kaimuturrean, Bermut musikatuaren edizio berria izango da. Musika jarriz ekitaldia girotuko du Andoaingo disko-jartzaileak



2023an egin zen lehen Bermut musikatua Kaimuturrean. Aritz Agirre disko-jartzailea, argazkian. AIURRI

Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Bermut saioa zurekin abiatu zen, zer nolako momentua da eguerdia musika entzuteko?

Oso gogoko dut, une aproposa iruditzen zait. Jendea gustura egoteko, eta, oro har, giro ona sortzeko unea da. Dantza egiteko aukera ere egoten da, baina orokorrean lagunekin gustura egoteko unea izaten da. Egia esanda, ez da momentu txarra, geroz eta ohikoagoa da eguerdian eta arratsaldean DJ-ak egotea.

Musikaren aukeraketa bertarutzen den jendearen arabera egiten al duzu?

Saioaren arabera egokitzen dut musika, eta zentzu horretan, saio bakoitza desberdina izaten da. Hala ere, beti edukitzen dute norberaren zigilua edo kutsua. Bestalde, beharrezkoa da momentu bakoitzean egokitzen jakitea. Esate baterako, Santakrutzetan musika eguerdian jarriko badut, kontuan hartzen dut adin desberdinetako jende asko egongo dela; umeak, gazte kuadrilla

batzuk, gurasoak, adineko jendea, eta testuinguru horretan, beharrezkoa da errealitate horretara egokitzea. Halakoetan, euskal musika, ezagunak diren abestiak eta ez ezagunak direnak uztartzea gustatzen zait.

Santakrutzetan gauzez pintxatuko al zenuke?

Ez dut baztertzeko. Gauean musika jartzea ere asko gustatzen zait, baina, kasu horretan, oso desberdina izango litzateke. Gauak beste aukera bat ematen

dizu; gazte gehiago, parranda gehiago, beste mota bateko musika jartzeko aukera ematen dizu. Askotan aritu naiz gauzez musika jartzen.

Etzakit taldearen itzuleran musika jarri zenuen Oialumen. Nolako esperientzia izan zen?

Oso polita izan zen, oso gustura egon nintzen! Kontzertua ikusterera jende asko joan zen, eta kontzertua amaitu ostean, bertan gelditu ziren gehienak. Kasu horretan ere, musika egokitu behar duzu, egoera irakurtzen jakin behar duzu: alegia, Oialumen, Etzakit-en kontzertua eta gero, mila pertsona inguru, euskaldunak gehienak, eta horietako asko trikitixazaleak. Ezaugarri horiek aintzat hartuta antolatatu nuen saioa.

Bestalde, haiei gustatzen zaien musika estiloa jartzeaz gain, seguruenik ezagutuko ez dituzten abestiak ipintzea ere gustatzen zait. Lehenengo abestia ezagutu ohi dute, baina bigarrena seguruenik sorpresa bat izango da haientzat. Formula hori erabiltzea oso gogoko dut.

Zer dira Santakrutzak zuretzat? Eta DJ-a izatea?

Santakrutzak herriko jai politenak dira. Nire kasuan, gaztetako lehenengo parrandak izaten ziren. Herriko jendearekin egoteko festak dira, eta oso momentu polita izaten da.

DJ-a izatea gaztetatik nirekin bat etorri den zaletasuna izan da, nahiz eta pintxatzen duela hamar urte inguru hasi. Gaztetatik, oso musikazalea izan naiz, musika asko entzun izan dut eta musika partekatzea gustatu zait beti. Hori nire bizitzaren parte handi bat izan da gazte-gaztetatik. Lagunek bultzatuta musika jartzen eta horren inguruan ikasten hasi nintzen, eta azkenean,

alor horretan, erabat murgildu nintzen.

Zein da huts egiten ez duen kantu bat? Baten bat esango zeniguke?

Huts egiten ez duten asko daude. Momentuaren arabera aldatu egiten da, baina orokorrean jendeak abesti ezagunak eskatzen ditu, eta hori nahiko urrutiko dago nik nahi dudantetik. Lehen aipatu dudak bezala, jendeak sorpresa hartu ditzan eta abesti berriak deskubritu ditzan gustatzen zait. Bestalde, jende nahiko hurbiltzen da abesti zehatz baten inguruan galdezka, eta hori ere asko gustatzen zait.

Hala ere, badakizu Zetaken abesti bat jartzen baldin baduzu funtzionatuko duela, edota ETS-ren abesti bat jartzean badakizu jendea pozik egongo dela. Zentzu horretan, asko funtzionatzen du abesti ezagun baten errepika sartzea, edo base baten gainean abesti ezagun bat jartzea. Ezagunak diren abestiek normalean ez dute huts egiten, jende gehienak abesti ezagunak entzun nahi dituelako. Esate baterako, huts egiten ez duen abesti bat Etzakit taldearen Izar abestiaren bertsioa da, Esne Beltzak egindakoa. Oso polita da.

Zein musika motak uztartzea gustatzen zaizu?

Niri musika dantzagarria gustatzen zait. Musika elektronikoa funky-arekin, eta musika beltza influentzia askorekin uztartzea gustatzen zait. Nahasketa hori egitean, euskal kantak sartzen ditut, momentuaren arabera gehiago edo gutxiago. Azken urteetan, jarri dudak musika ezagunaren artean arrakasta izan duen abesti bat "Body on the floor" Jamie XX-ena izan da; alai eta musika beltzaren influentzia asko ditu. Hori gustuko ez baduzu, hilda zaude.

Ernaitza
liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Gora Santakrutzak! Gora Andoain!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com

TXINDOKI
TABERNA

JATE
TXEA
TABE
RNA

ONDO
PASA
FESTETAN

KALE NAGUSIA, 55
20140 ANDOAIN
TEL.: 943 592 954



SANTA KRUTZ JAIK 2026. EGITARAUA

APIRILAK 30

OSTEGUNA

16:00 Haur pregoia eta txokolatada Zumea plazan.

17:00 Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan.

18:30 Lebiton erraldoi eta buruhandien konpartsa Plaza Moretik eta Gora Kaletxiki txaranga Zumea plazatik.

18:30 Zumeatarraren danborrada, elkartetik abiatuta.

19:00 Txupinazoa Lebiton erraldoi eta buruhandien konpartsaren eskutik.

19:30 Txoznen irekiera.

19:30 Harri-jasotze herrikoia Bekoplazan, "V. Santakruz Harri Txikia".

20:00 Olagain txistularien elkartearen kontzertua Santa Krutz ermitan.

21:00 Santakruzetako II. Futbito txapelketa Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian.



Joxe Ramon Ansaren oroimen ekitaldia: Kaimuturrean izango da. AIURRI

23:00-04:30 Txilipipar rock, Lukiek punk-rock eta 3ttu erromeria.

MAIATZAK 1

OSTIRALA

07:00 Gautxorien txaranga.

08:00 Gautxorien argazkia Kaimuturrean.

10:30 XLVI. Kros herrikoia: Bixente Huiziren omenez.

11:30 Haur krosa.

12:00 Txalaparta Kaimuturrean eta kantu kalejira Plaza Moretik abiatuta.

12:00 Txirringularitzako XLVII. Santa Krutz saria Kale Berria eta Guipuzcoanoren artean.

12:00 Bertso-poteoa abiatuko da Kale Nagusitik.

14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian (euria eginez gero, Zumea plazan).

16:30 Kontzertua.

17:30 Erreka jaitsiera Santa Krutz zubian. Etxarritik abiatuko dira 16:15etan.

18:00 Bakailao txapelketa, Kale Nagusian, Irunberri elkartearen kanpoaldean.

18:30 Bizikleta festa, Kale Berrian, Andoaingo Txirringulari Eskolaren eskutik.

18:30 Herri danborrada, Bekoplazatik.

19:00 Matraka elektrotxaranga Bekoplazan.

21:45 Zezen-suzkoa, Maindi iturritik hasita.

20:00-04:30 F.A.M.E tekno, Hazas elektrolatino-mambo eta Ostarte erromeria.



**BAIETZ GABE, EZETZ DA
JAIETAN ERASO
SEXISTARIK EZ!!**

EZ IZAN KONPLIZE



ANDOAINGO UDALA



Aita Larramendi Ikastola
Jaietan ere ekin euskaraz

Txistoki Pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525 - Fax: 943 590 390
andoain@ikastola.eus
www.andoainkastola.eus





Gora Santa Krutzak



Gabilondo
AHOLKULARITZA
Gora Santakruzak!

Kale berria, 1-behea. ANDOAIN
Tel./Faxa: 943 303 025
asesoriagabilondo@yahoo.es



MAIATZAK 2

LARUNBATA

- 10:30** Musika Eskolako akordeoien kalejira Juanita Alkain plazatik hasita.
- 10:30** Eneko Martiarenaren oroimenezko V. Xake txapelketa, Juanita Alkain plazan.
- 11:00** Joxe Ramon Ansaren aldeko oroimen ekitaldia: "Ez gaude ahaztuta", Kaimuturrean.
- 11:30** Kuadrillen arteko jokoak, txarangaz lagunduta, Bekoplazatik.
- 11:45** Urki Dantza Taldearen emanaldia, Zumea plazan.
- 12:00** Puzgarriak Zumean. Euria eginez gero, Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian.
- 12:00** Bermut musikatua Ezekiel Djarekin, Kaimuturrean. Euriarekin, Bekoplazan.



Iruzta taldea Kuadrillen Egunean ariko da. Argazkian, Jone Izagirre Goenaga, Enara Donavera Garcia eta Malen Barrenetxea Solano. AIURRI

- 14:00** Kuadrillen eguneko ate-irekiera eta bazkaria Bekoplazan. Euria eginez gero, Zumea plazan.
- 17:30** DJ ibiltaria Bekoplazatik abiatuta.
- 17:00** Txotxongilo ikuskizuna, Santa Krutz ermitaren aurrealdean.

- 18:30** EHko garagardoak (Iker Etxebeste). Karom eta Iruzta taldea, Zumea plazan.
- 20:00** Malkogarriyak, Bekoplazan.
- 22:30** Peña Santa Krutz elkartearen danborrada.
- 23:00-04:30** Muxutruk taldearen erromeria.

MAIATZAK 3

IGANDEA

- 10:00** Dultzaineroen kalejira, Juanita Alkain plazatik abiatuta.
- 10:30-15:00** Artisau azoka eta umeentzako tailerrak, Maindi iturriaren inguruan. Euria eginez gero, Zumea plazan.
- 10:30** Banderaren jaitsiera. Udal korporazioak, eskopeteroek eta txistulariek lagunduta.
- 10:30** Banderaren arbolteza eta Ezpata dantza, zubian.
- 11:00** Meza, Alberto Agirre abesbatzaren parte hartzearekin. Eskopeteroak.
- 11:30** Ezpata dantza eta Brokel dantza, zubian.
- 12:00** Txakolin dastaketa Kaimuturrean. Euria eginez gero, Bekoplazan.

12:00 Andoaingo trikitilarien kalejira, Kale Nagusitik.

13:00 Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandaren kontzertua, Kale Nagusian. Euria eginez gero, Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian.

17:00 XLV. Sagardo txapelketa eta basataloak Andoaingo talogileak, Zumea plazan.

17:00 Haurrentzako baserriko kirol parkea Kaimuturrean. Euria eginez gero, Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian.

19:00 Plaza dantzak, Kale Nagusitik abiatuta.

19:00 Taberna arteko pintxo txapelketa.

21:15 Zezen suzkoa, Maindi iturriaren paretik hasita.

21:30 Danborrada popularra. Jaien amaierako ekitaldia.

Jai egitaraua Aiurri.eus gunean, atal berezian eta Agendan.

ORMENDI KIROLAK

Gora Santakrutzak



Frexko-
frexko,
arin-arin



943 591 806

LEIZARAN
INMOBILIARIA

Gora Santakrutzak!

Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
Tel: 943 591 856
Tel: 619 661 323
e-mail: info@inmoleizaran.com
www.inmoleizaran.com

- Etxebizitzak
- Lokalak
- Alokairuak

www.txapelasybordados.com
www.txapelabordatuak.eus

Goikoplaza, 5. ANDOAIN.

637 283 224

keinuandoain@gmail.com



KEINU

Ono pasa
Santa Krutz
jaietan!!!





Lebi zezen-suzkoa iluntze aldera irtengo da jaietan. AIURRI

Lebiton Konpartsaren ibilbideari omenaldia

Andoaingo Erraldoi eta Buruhandien konpartsak emango die hasiera jaiei

Erredakzioa ANDOAIN

30 urteko ibilbidea osatu du Erraldoi eta Buruhandien konpartsak. Azken urteotan, bereziki, Lebiton izena hartu dutenetik, lan oparoa egiten ari dira Andoainen. Santakrutzetan eta Sanjuanetan ezinbestekoa da haien partaidetza. Eta beste hainbat ekimenetan ere parte hartu ohi dute, hala nola, Korrikan eta Gau Beltzan. Ostegun honetan, Zubiaurre etxeko lehen solairuko balkoitik eurek emango diote jaiari hasiera. Aurreratu daitekeen bakarra da zerbait berezia prestatzen ari direla. .

Juan Legarra Etxebeste eta Cecilia Legarra, Azelaingo bikotea, ahanzturatik berreskuratu zituzten Mari eta Basajaun... ondare oparoa gordetzen da Andoainen. Buruhandiak ahaztu gabe: makinista, emakume estraperlista, ikazkina, arrieroa eta, nola ez, Lebiton bera.

Jaietako pregoilariak, XXI. mendean

Honatz, zerrenda:

- 2026** Lebiton konpartsa.
- 2025** Punttuka Bertso Eskola.
- 2024** Irunberri elkarte.
- 2023** Auzoetako Jai Batzordeak.
- 2022** Zumeatarra elkarte.
- 2019** Aiurri.
- 2018** Maiatzaren 3ko bluxadunak.
- 2017** Txindoki taberna.
- 2016** Katramila antzerki taldea.
- 2015** Auzoko dendariak.
- 2014** Emakumezko danborjoleak.
- 2013** Urki dantza taldea.
- 2012** Olinpiapopularrak.
- 2010** Joxean Barandiaran.
- 2009** Ramon Ansa.
- 2008** Pedro Unanue.
- 2007** Maria Jesus Fernandez.
- 2006** Juanma Barcina.
- 2005** Pako Arnaiz.
- 2004** Nagore Zipitria.
- 2003** Xabier Lekuona.
- 2002** Luis Mari Arnaiz.
- 2001** Ixiar Oreja.



Egitarauan ageri da. AIURRI

Errekan bizi den antzarra jaietako maskota bihurtu dute

Kaimuturrean, Oria eta Leitza-ran elkartzen diren tokian, hegaztien komunitatea egonkortu egin da. Ahateak dira gehiengo baina bada antzarra, eta ez txikia! Jai Batzordeak auzoan bizi den antzarra maskota bilakatu du. Krutzi izenarekin bataiatu dute eta aurtengo jai egitarauan aurkeztu dute. Era berean, kamiseta berriak egin dituzte eta haietan ageri da Krutzi, nola ez, bluxa soinean.



Kamisetak egin dituzte. AIURRI



Urigainen jende asko elkartu zen aurreko larunbat goizean. MUGIMENDU FEMINISTA

Protokoloa prestatzeko lan saioa egin zuten Urigainen

Erasoen aurkako protokoloa landu dute eta aurreko larunbatean formakuntza-saio egin zuten Urigainen

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Mugimendu Feministak, Txosna Batzordearekin eta Andoaingo Udalarekin lankidetzan, erasoen aurkako protokoloa landu du. Jardunbide bizia eta kolektiboa da, urtez urte osatuz doalako. Eta, gainera, norbanabako eta eragile ugariren lankidetzarekin. Adierazgarria izan baita aurtengoa. Mugimendu feministak indarkeria matxisten inguruko formakuntza herrira zabaltzeko erabakia hartu eta aurreko larunbatean saio irekia egin zuten Urigainen. Pertsona ugarik bat egin zuten deialdiarekin, formakuntza-saio jendetsua osatuz.

"Protokoloa eraso matxista, homofobo, bifobo, transfobo, lodifobo, putofobo, arrazista eta bestelakoetan aplikatzen da", hitz horiekin definitu zuten helburua Aiurri astekariari aurreko astean egindako elkarrizke-

tan. Jaiak gainean dira eta jazarpena saihestea helburu du Andoaingo Mugimendu Feministak. Desioa argia baita: "jai eredu eta eremu aske, transfeminista eta segurua".

Urtez urteko lanketaren ondorioz, "ekintza eta autodefentsa transfeministan elkar babestu, saretu, zaindu eta ahaldundu" nahi dute.

Telefono zenbakia, erasoen aurreko arreta jasotzeko

Andoaingo Mugimendu Feministak egin bezala, Andoaingo Udaleko Berdintasun Sailak ere sentsibilizazio kanpaina egin du. 676 567 724; hori da Andoaingo Udalak eraso matxisten aurrean zabaldu duen arretarako telefono zenbakia. Apirilaren 30ean, maiatzaren 1ean eta 2an gaueko bederatzietatik goizaldeko 06:00ak arte martxan izango da.



IKAI VANS

Autokarabana eta kanperren alokairua, mantenua eta salmenta



Balastrain Matxinea 4,
9 pabilioia
20140 Andoain - Gipuzkoa
T. 943 098 132
info@ikaivans.com



Erreka jaitsiera, aurreko Santa Krutz jaietan. AIURRI



Kale Nagusia jai giroan. AIURRI



AIURRI

Parte hartze handiko erreka jaitsiera izango da aurtengoa

Erreka jaitsieran parte har dezaketen gehieneko kopurua lortu du Eguzki talde ekologistak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

"25 urte Leitzarain nabigatzen eta Parke Natural izendapena aldarrikatzen!", hori da aurtengo goiburua nagusia. Eta erantzuna bikaina izan da, izen ematea itxi egin behar izan dutelako. Pena handiz hartutako erabakia dela dirudi, Eguzkik apirilaren 23an zabaldu zuen mezuari erreparatuta: "2026ko erreka jetsierako izen ematea itxiztat eman dugu. Gehieneko partaidetza kopurura iritsi gara eta, segurtasun arrazoiak tarteko, ezin dugu taldea handitu". Bestalde, ordea, pozgarria da

hori gertatu izana: ekimenak duen arrakastaren seinale baita. Izan ere, aurtengoa, data seinatua da: "erreka jaitsierak 25 urte betetzen ditu aurtent! Andoingo Eguzki Talde Ekologistatik spot bat egin dugu hori goraipatzeko eta aurtengo edizioari zabalkundea emateko". Errekazaleek bat egin dute deialdiarekin. Ospakizun giroko hitzordua da, bertan ateratzen diren poza ikustea besterik ez dago. Bazterrean utzi gabe, ekimenak baduela aldarrikapena, bere baitan: Leitzarain Parke Natural izendatzea.

Egitaraua, gaztelaniaz eta mundu osoko hamaika hizkuntzatan

Santakruzak hasteko hamar egunen faltan, egitaraua banatzeari ekin zion Jai Batzordeak. Tamaina txikiko eskuorria da, eguneko hitzorduek xehetzen dituen. Aurtengoak, ordea, berrikuntza nabarmena dakar. Euskarazko egitarauaren ondoan QR kode bat ageri da eta, bertan klik eginez gero, Aiurri.eus guneko esteka batean eskegita dauden erdarazko bertsiok irakur daitezke: Gaztelaniazkoa, lehenik; eta mundu osoko hizkuntzak, jarraian. Jai Batzordeak Andoingo biztanlegoaren jatorria aintzat hartu eta mundu zabalean hitz egiten diren hizkuntzatarak itzuli du. Ezusteko atsegina hart du batek baino gehiagok.

Murala eraberritu dute

Kale Nagusitik Bekoplazara doan aldapan, Leizarain jatetxearen azpikaldeko horman, Santa Krutz jaien aldeko murala bizilagunen paisaian integratu da. Pandemia garaian egin zuten, jaiak normaltasunez egin ezin zirenean. Urteak igarota, muralaren koloreak eta xehetasunak ahitzu doaz. Aurreko larunbatean Jai Batzordeko hainbat lagunek berritze lanak egin zituzten.

Pizzak eta kroketak

Hirugarren urtez jarraian, afaltzeko tarteak izango dute festazaleek Txosnagunean. Kuadrillan nahiz familia giroan afaltzeko aukera izango da, beraz. Pizzak eta kroketak jateko aukera izango da apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean eta 2an. 20:00tan otorduak eskaintzen hasiko dira, gauerdira bitarte. Zer esanik ez, bertan afaltzeko mahaiaik eta aulkiak izango dira.



Bizi Santakruzak!

Gozatu jaiak, baina ez izan konplize!
Jaietan eraso sexistarik ez!



ANDOA
INBIZI
TZEKO



ANDOAINGO UDALA





Ostolaza, Segurado eta Mercader, kirolgune berria eraikiko duten eremuan. AIURRI

Kirolgune berria, Etxeberri plazan

Urnietako plazan aisialdirako eta ariketa fisikorako gune berria jarriko dute martxan. Datozen hilabeteetan gauzatuko da obra, Udalak iragarri duenez. Partaidetzazko aurrekontuen prozesutik abiatutako ideia errealitate bilakatuko da.

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Urnietako Udalak Etxeberri plazan eraikiko duen kirol gunearen proiektua aurkeztu du aste honetan. Aurrekontua, orotara, 135.498 eurokoa da, eta lanak uda amaierarako amaituta egotea aurreikusten dute. Denera, lau hilabeteko obra izango dela zehaztu dute, eta, hori bai, lanek iraun bitartean inguruan dauden aparkalekuak itxita egongo dira.

Kirol guneen aldeko apustua

Kirol-guneak neurri txikiko futbol-zelai bat izango du eta albo batean saskibaloian aritzeko saski bat izango da. Jolasean eta lagunartean egoteko gune berria izango da, beraz. Eraikuntza lanen xehetasunak Jorge Segurado alkateak eman zituen: "gune osoa altuera alda-korreko hormigoizko horma batez inguratuta egongo da, eta eremua argiztatzeko LED argiteria duten bi farola jarriko dira".

Partaidetzazko aurrekontuen prozesuan atera zen proposamena eta horri bidea emango dio Udalak: "iazko parte-hartze prozesuan herritarrek aukeratutako proiektuetako bat da eta, hitza beteta, aurrera eramango dugu", adierazi zuen alkateak hedabideen aurrean deitutako agerraldian.

Agerraldi berean, Seguradok alor honetan egindako hobekuntzak zerrendatu zituen: "2022an kiroldegi berria inauguratu genuen; skate park bat eta pump track bat gaitu ditugu; frontoian hobekuntzak egin ditugu, kirol-espazioen argiztapena aldatu dugu; eta laster, kalisteniako parke bat ere egingo dugu".



EH BILDU

Irurain gaina, Batzar Nagusietan

Gipuzkoako Batzar Nagusietan eztabaidagai izan da aurreko astean Irurain gaineko bide-segurtasuna. Proposamena EH Bilduk eraman zuenez eta, koalizioak zabalduko oharraren arabera, proposamena aho batez onartu zen. "Herritarren aldeko adostasunak" lortu izana txalotu zuten, batzarralditik atera ostean.



AIURRI

Aldundia-Udala bilera

GI-3722 errepidearen eta Iruraingo biribilgunearen segurtasun-azterlanaren lehen tasunak zehazteko, Batzar Nagusietan aztergaia hizpide izan zen egun berean, Urnietako alkate Jorge Segurado eta Bide Azpiegiturarako diputatu Felix Urkola batzartu ziren. Foru erakundeak datozten asteetan osatuko du txostena, ekainean aurkezteko asmoz.

Berrabiarazi dituzte lanak

Egapeko DBHko eraikin berria martxan jartzeko lanei berrekin diote, aurreko astean. Urnietako Udalak emandako datuen arabera, eraikuntza-lanak 2025eko uztailan hasi ziren baina, irailean, eten egin behar izan zituzten arrazoi teknikoak argudiatuta. Antza, luraren erresistentzian zegoen arazoaren muina.



UDALA



Saridunak, Jorge Segurado alkatearen eta Mikel Artola zinegotziaren alboan. Aurkezle Janire Atxurra izan zen. AIURRI

Antia literatur sariketa

On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren XXXII. edizioari amaiera eman zioten ostegun arratsaldean, Saroben antolaturiko sari banaketa ekitaldian. Azken 25 urtetan saritu dituzten lan guztiak liburura eraman dituzte, bestalde

Erredakzioa URNIETA

Lehiaketara aurkeztutako lan guztien artetik epaimahaiak honakoak nabarmendu ditu:

Haurren kategoría

1. saria:
Elaia Zaldúa Lizeaga,
"Aballarri, esnatu!".
2. saria:
Elke Garmendia Celaya,
"Koroaren itzala".
3. saria:
Jugatx Paz Gomez,
"Ametsen bidea".

Gazteen kategoría

1. saria:
Paula Iñigo Fernandez,
"Zugan sinistu".
2. saria:
Izaro Arrieta Etxeberria,
"Motxila batekin bizkarrean
bizitzen ikasten".
3. saria:
Naiara Naharro Sanmiguel,
"Nigertik Espainiara".

2020-2025 urte bitarteko idazlan sarituak, bestalde, liburu batean bildu dituzte eta Lekaion daude eskuragarri.



Kusle ugari bertaratu zen Sarobera. AIURRI



Haurren mailako saridunak, oholtzan. AIURRI



Larrea, Garmendia eta Ziaurritz, Lekaio kultur etxean, liburuaren aurkezpenean. AIURRI

Larrea eta Ziaurritz lagun hartuta, aurkezpena egin zuen Garmendiak

"Ulhaintsaren negarra" liburuaren aurkezpena Saroben, Nazioarteko Liburuaren egunarekin bat eginez

Xabier Lasa URNIETA

Urnietarrek euskaraz sortutako liburuak ez dira asko izaten eta, hori gertatzen den aldiro, narbentzeko moduko ekitaldia izaten da. Oraingoan, erbestea ezagutu zuen Jon Garmendia "Txuria" dugu protagonista. Etzakit eta Esne Beltza taldeen kantu ezagun askoren letragilea da eta aspaldian ari da iritzigile lanetan, prentsa-idatzian. Baina poesiara eta literatur jardunera hurbiltzen den libururik ez zuen oraino argitaratu. Eta berriki eman du urratsa, Elkar argitaletxearen eskutik. "Ulhaintsaren negarra" izenekoa, autobiografikoa da erabat. Barrutik kanpora egindako ariketa izanik, helduleku bila aritu zen Izarre baserrian jaiotako urnietarra. Ekiteko, Maider Ziaurritzen kanpo begirada ezinbestekoa zitzaion. Alboan nahi zuen berak idatzitakoak liburu

bilakatu aurretik. Biren arteko lankidetzak horretan xaxatzaile lanetan aritu da Garbiñe Larrea, eta argitalpena gorpuzteko ezinbesteko bidelagun bilakatu da. Esperientzia badu Larreak argitalpengintzan, izan ere, azken urteotan Durangoko Azokan liburu gehien saltzen duen egileetakoa baita. Gauzak horrela, hiruren partaidetza garrantzitsua zen sorterrian antolatu zen aurkezpen-ekitaldian. Lekaio Kultur Etxean egon ez zenak Aiurri.eus gunean aurki dezake, Bideoak atalean, saio osoa.

Dena esatera, gozamina izan zen hiruren arteko mintzaldia entzutea. Gizakiarekin lotura estua duten sentimenduez eta beste hainbat kontuez jardun baitzuen hizketan, hirukoteak: urruntasun fisiko eta psikologikoa, urruntasun geografiko eta sentimentala, giza maitasuna eta hura adierazteko premia, herrimina...



Garmendiak liburuak sinatu zituen ekitaldiaren amaieran. AIURRI

Ohorezko maila, gertu

Urnieta KE gorengo kadete mailako jokalariek denboraldi bikaina egiten ari dira: ligako 26. jardunaldira lidertzan iritsi dira. Gauzak ondo, datorren denboraldian Ohorezko Ligan ariko dira. Honaino iritsita, ligako azken jardunaldietan denboraldia borobiltzea dagokie Orain arte egindakoa, behintzat, bikaina izan da. Zorionak! Taldekideak: Amauri, Gorka Lopez, Andoni Tranche, Alai Collado, Xabi Agirre, Ander Egaña, Axel Gallo, Markel Ezama, Ekaitz Nieto, Unax Ugarte, Ior Iraola, Julen Salinas, Hodei Lopez, Ibai Goñi, Oihan Santin, Asier Arana, Abraham, Julen Cester, Iurgi Garcia.



UKE

Garaipena, Red Bull MotoGP Rookies Cupeko lehen proban

Beñat Fernandez andoaindarra garaile izan zen zirrara handiko lasterketan

Erredakzioa ANDOAIN

Bujosa 16 urteko gazte espainiarra eta Singhapong tailandiarra izan ziren Fernandezekin batera podiumera igo ziren kirolariak. Lehen lasterketan, beraz, garaipena eta lidertza eskuratu ditu "Pelontxu" k.

Eskarmentua baliatu zuen eta pozarren zegoen aurrikusitako plana bete zelako: "Bujosari bere erritmoa egiten utzi nion. Banekien azkarragoa nintzela eta azken bihurgunean hura gainditzea nuen buruan. Plana ezin hobe atera da".



Andoaindarrak lehen lasterketan garaipena lortu du. RED BULL

Euskaldunak Real Union B liderra jasoko du etxean

Azken 12 puntuetatik 10 lortu ditu Euskaldunako lehen taldeak, eta joera horri esker, Ohorezko Mailari eustea lorgarria den helburua da. Hori, bai, liga amatzeko 4 partidak borrokatu beharoko dira. Jardunaldi berrian liderraren bisitaldia jasoko dute urdiñek. Larunbatean izango da partida, 15:30ean hasita, Ubi-tarte zelaian.

SAILKAPENA, 30. JARDUNALDIA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

1	Real Union B	67
14	Euskalduna	30
15	Amaiak Bat	28
16	Mutriku	25
17	Hernani	24
18	Deustu	23

Loatzoko igoera

Loatzoko XXXII. igoera-jaiatsiera antolatu zuten aurreko asteburuan. Proba Amasatik abiatu zen eta giro aparta izan zen ibilbide osoan; ikusle ugari bertaratu baitzen animatzera. Lasterkarien artean ziren Zumeatarra elkarteko kideak. Argazki-bilduma ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. Hassan Ait Chaou eta Oihana Zubillaga Blanco izan ziren garaileak.



AIURRI

Laba Gravel Andoaingo proba, maiatzaren 30ean

Antolatzaileek diotenez, "LABA" proposa da ultretan hasteko:

lau aukera dituzu (70, 110, 170, 270) eta mailaz maila bidea egiten joan zaitezke. Orientatzen jakitea, ahalegin fisiko eta mentalari eustea eta gure paisaia-ekin gozatzen trebatuko zara".

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ORAIN GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

JAIK

ANDOAIN Santakruzak

Ekitaldiz beteriko ospakizunak, ostegunean hasita. 4-11 orrialdeetan jaietako loturiko albiste ugari.
Apirilak 30-maiatzak 3.

ERAKUSKETA

ANDOAIN "Orratz-begia"

1936ko kolpe militarren ondorioz ebakuatutako haurren errealitateaz, aztergai.

Bastero Kulturgunea.

Azken eguna: Apirilak 30.

ANDOAIN Konpartsa

"Lebiton eta gure pertsonaiak". Erraldoi eta buruhandien 30 urteko ibilbidea, erakusketara eramanda.

18:30, Bastero Kulturgunea.

Maiatzak 14, osteguna.

AISIALDIA

URNIETA Udalekuak

Eguzkitan Blai eta bestelako jardueretan parte hartzeko epea zabalik dago. Urnieta.eus webgunean, informazioa eta izena emateko aukera.

Azken eguna: Apirilak 30.

ANDOAIN Udalekuak

Goazen Jolastera eta bestelako jardueretan parte hartzeko epea zabalik dago. Xehetasun gehiago, 10. orrialdean.

Izen-ematea: zabalik.

DOKUMENTALAK

ANDOAIN Axeri Dantza

"Axeri Dantza. herri baten erritua". Sonatua izan da landutako dokumentala eta berriro ikusteko aukera izango da.

18:30, Bastero Kulturgunea.

Maiatzak 5, asteartea.

ANDOAIN Lebiton konpartsa

"Lebiton eta gure pertsonaiak" Andoaingo Erraldoi eta Buruhandien 30 urteko ibilbidea jasotzen duen ikus-entzunezkoa.

18:30, Bastero Kulturgunea.

Maiatzak 14, osteguna.



Entsegu betean daude Urnietako dantzazaleak. AIURRI

URNIETA Entsegu eta bazkarirako txartelen salmenta

Maiatzeko ospakizuna borobiltzeko entseguetan murgildu dira atzoko eta gaurko dantzariak. Bestalde, XX. Urnieta Erromerian eguneko bazkarirako txartela erosi behar da. 10 euroko prezioan eskuragarri izango da ostegun honetako entseguan.

Apirilak 30, osteguna. 18:30, Egape ikastola.

ODOL-EMAILEAK

URNIETA Hitzordua

Odola emateko hitzordua.

16:30, Gaztelekua.

Maiatzak 7, osteguna.

ANTZERKIA

ANDOAIN "52 hertz"

Ados teatroren eskutik, isolamendu sozialaren bakardade unek sufritzen dituztenen gaineko begirada.

19:30, Bastero Kulturgunea.

Maiatzak 15, ostirala.

ANDOAIN "Kolapsoa"

Kontsumoari buruzko hausnarketa egiten da antzezlanean.

19:30, Bastero Kulturgunea.

Maiatzak 22, ostirala.

MUSIKA

URNIETA La Otra

Jabekuntza Eskolaren zikloaren amaiera kontzertua. Madrilen jaiotako abeslari eta konpositoreak intimitatea eta konpromiso soziala uztartzen ditu.

20:00, Sarobe.

Maiatzak 22, ostirala.

MANIFESTAZIOA

HERNANI Maiatzak 1

LABek deituta, Langileen Nazioarteko Egunarekin bat eginez.

12:30, Hernaniko Gudarien plaza.

Maiatzak 1, ostirala.

FORMAKUNTZA

URNIETA "Parekatu"

Atzerriko ikasketa eta prestakuntza ibilbideak homologatzeko egitasmoa, garapen agentziaren eskutik.

10:00-12:00, Kiroldegiko boxa.

Maiatzak 6, asteazkena.

ANDOAIN Erreleboa planifikatzen

Negoioaren jarraipena eta eskualdetzea aztergai.

13:15-15:15, Urigain etxea.

Maiatzak 5, asteartea.

EUSKARA

ANDOAIN Eusfera

Haurren artean euskararen erabilera areagotzeko ekimena Euskal Herri osora zabaldu da. Andoaingo hitzorduak, 2-3 orrialdeetan.

Maiatzak 8-17.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Peru!
Apirilaren 26ean 12 urte!!! Ondo pasa! Muxu potolo bat, etxeokak.



ANDOAIN
Zorionak Malen
Apirilaren 25ean 19 urte beteko dituzu!! Ondo ospatu eta egun polita igaro dezazula!! Asko maite zaitugu!! Etxeokak.




ANDOAIN
Zorionak, Mara!
Marak apirilaren 30ean 3 urte beteko ditu. Zorionak, Mara! Jarraitu hain alai eta hain jator. Maite zaitugu! Etxeokak.



ANDOAIN
Ane Amutxastegi
Urte askuan etxeokoen partetik, muxu bat eta ondo ospatu Santa Krutz eguna!

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Amarga Navidad
Almodovarren berrienean fikzioa eta errealitatea uztartzen dira.

Maiatzak 1, ostirala. 19:30.
Maiatzak 2, larunbata. 19:30.
Maiatzak 3, igandea. 19:30.
Maiatzak 4, asti. 17:00, 19:30.

KOMUNITATEA

LAB SINDIKATUA BETERRI-BURUNTZA

Eskualde mailako manifestazioa Hernanin, maiatzaren lehenean

Maiatzaren lehena dela eta, LAB sindikatuak eskualdeko manifestazioa deitu du eguerdiko 12:30etan hasita, Hernaniko Gudarien plazan. Euskal langileok, gerrari eta gerraren faktura ordaintzeari ezetz esango diogu, eta antolakuntza kolektiboaren zein borrokaren bitartez, Euskal Herrian beste eredu bat posible dela aldarrikatuko dugu. Kaleak hartuko ditugu Euskal Herriko 26 eskualdetan, hiru aldarrikapen erdigunera ekarrita: etxebizitza eskubidea, kalitatezko zerbitzu publikoak eta soldata eta pentsio duinak.





Aiurrikide izateak saria dakar